

## Nafarroa buruan dago botikak birziklatzean

**N**afarroan, batez beste, botiken ontzien eta hondakinen 8,02 kilogramo birziklatzen ditugu mila biztanleko, SIGRE erakundeak egin duen azterketa baten arabera. Hartara, datu horiek aintzat hartuta, Nafarroako Foru Komunitatea liderra da Espainian botikak birziklatzean.

Gainera, botiken bilketa Nafarroan Estatuko mailaren oso gaitetik ari da handitzen, eta, ondorioz, hondakin mota honen gaikako bilketan herritarren laguntza gehien emendatu den bigarren autonomia erkidegoa da.

SIGRE Medicamento y Medio Ambiente erakundearen azterketaren arabera, herritarrek gero eta argiago dute botiken hondakinak eta ontziak egoki birziklatu behar direla. Zehazki, herritarren %86k uste dute hondakin horiek zakarrontzira edo isurbideetara botatzeak kalteren bat egin diezaiokeela ingurumenari eta, horrenbestez, ingurumena babesteko tratamendu espezifiko behar dutela.

### Zer bota daitekeen eta zer ez SIGRE puntuetara

- Botika bat bukatu dugunean: ontzi hutsa (flaskoak, blisterrak, anpuluak, tuboak, kartoizko kaxak...).
- Sendabidea amaitu dugunean: ontzi hutsak edo sendagaien hondarrak dituztenak.
- Botiken kutxa berrikusten dugunean: behar ez ditugun botikak eta iraungita daudenak. Denak beren kartoizko



kaxan sartuta bota behar dira.

**Horiek guztiak ez dira inoiz bota behar edukiontzi hori, berde edo urdinetara, eta, era berean, ez dira garbiguneetara eramane behar.**



EHorrez gain, komeni da jakitea zer EZ den bota behar botikako SIGRE puntura:

- Gazak eta/edo aposituak.
- Orratzak eta objektu zorrotzak.
- Termometroak, pilak, erradiografiak.

Herritar askok hala uste badute ere, SIGRE puntuan uzten diren botikak ez dira hirugarren munduko herrialdeetara edo antzekoetara bidaltzen, hondakinak sailkatzeko planta batera baizik. Han, ingurumena babesteko tratamendu egokiena ematen diete: birziklatu egiten dituzte, balorizazio energetikorako erabili edo modu kontrolatuan deuseztatzen dituzte. Hondakinen Europako Zerrendan duten sailkapenaren arabera egiten dute; izan ere, zerrenda horren arabera batzuk hondakin arriskutsuak baitira, eta beste batzuk, ez.

<http://www.sigrelandia.es/> webgunean joko interaktibo bat dago, txikiak SIGREri buruz gehiago ikas dezaten, baina betiere jarduera dibertigarrien bidez.

### NATURGUEA

Gaztelekua (Aranetxea).

Kale Nagusia 2 bis.

Jendaurreko ordutegia:

astearteak eta ostegunak: 11:30 - 13:30

Tel.: 948 244 946

[medioambiente@aranguren.es](mailto:medioambiente@aranguren.es)



# Artilulu berezia: Ibareko beste biztanleak

Azaroan, bi tailer egin genituen Sadar ibaiko eta Zolinatik gertu dagoen istil inguruko animaliak ezagutzeko. Horretarako, hain zuzen, ibai horretako arrainen lagin batzuk hautatu genituen, Mutiloatik igarotzen den ibai zatian. Eta eraztunak jartzeko saioa ere egin genuen Ezkorizko istiletik hurbil. .

Ibaian laginak hartzeko saioan, azterketa zientifiko bat nola egiten den ikusteko aukera izan zuten parte-hartzaileek. Ur laginak hartu genituen eta, Sadarren ibilbidean ezkutatuta, Mutiloatik igarotzen diren espezie batzuk ezagutu genituen.

Zehazki, hauek izan ziren arrain espezieetako hiru:

Ezkailua (*Phoxinus phoxinus*), 'txipa' ere esaten zaio. Barboaren familiakoa da espezie hau, tamaina txikikoa (10 cm baino txikiagoa), eta Kantauri itsasoko ertzaren ibaietako tarteko eta beheko zatietan bizi ohi da.



Ozeano Atlantikoko populazioetan espezie ez mehatxatu gisa dago sailkatuta; Mediterraneo itsasoko populazioetan, kaltebera gisa; eta Nafarroan, interes bereziko gisa (0209/1995 Foru Agindua). 15 ale hautatu genituen lagin gisa (helduak eta gazteak).



Burtaina (*Gobio gobio*). Barboaren familiakoa da, tamaina txikikoa (15 cm baino txikiagoa). Ebro eta Bidasoa ibaien arroan bizi ohi da, eta ibaien hondotan bizi eta elikatu ohi da. Penintsulako beste arro batzuetan ere sartu dute. Ezaugarri moduan, orban ilun edo urdinxken sail bat izaten du eta pare bat bizar ahoaren ondoan. Kaltebera VU A2ce gisa sailkatuta dago, Espainiako arrain kontinentalen atlasaren eta liburu gorriaren arabera. Ale heldu bat hautatu genuen lagin gisa.



Errutiloa (*Chondrostoma toxostoma*). Barboaren familiakoa da espezie hau, tamaina txikikoa (10 cm baino txikiagoa). Bular-, sabel- eta uzki-hegalen oinarrian orban gorrixka batzuk izaten ditu. Endemikoa da Iberiar penintsulan. Mediterraneo itsasoko populazioak mehatxatuagoak daude, kaltebera VU A2ce gisa sailkatuta dago Espainian, eta interes berezikotzat, Nafarroan (0209/1995 Foru Agindua). Ale gazteei behatzen egon ginen.

Hegazti faunaz ikusteko saioan, landa lana egitera joaten direnean jarraitzen duten metodologiaren berri eman ziguten. Eta, horrez gain, bi zozori (*Turdus merula*) eraztunak nola jarri zizkieten ikusteko aukera izan genuen. Arra eta emea ziren.

# Hurrengo jarduerak



“Paseo matutino” (egilea: Javier Yárnoz Sánchez)

## Argazki erakusketa Aranguren Ibarra: Aranguren Ibarra eta bertakoak.

**E**rakusketa honetan, Ingurumen Argazkilaritzako Lehiaketaren VI. ekitaldira aurkeztutako argazkietan hautaketa bat ikusteko aukera izango da. Lehiaketa honetako protagonista Aranguren Ibarreko natura da, eta aurtengo leloa hau izan da: Aranguren Ibarra eta bertakoak. Erakusketaren inaugurazioarekin batera, sariak banatuko dira, 18:30ean.

Egunak: 2013ko urtarrilaren 10etik 30ra.

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 21:00etara.  
Kultur etxea, Mutiloa

## Zuhaitzaren eguna Ibarrean familiek landatzea bultzatzeko V. ekitaldia: basoak gure seme-alabentzat.

Hitzordua Mutiloen artean izango da, martxoaren 10ean, 10:00etan. Gero, bazkari-pasada egingo da. **Martxoaren 6a arte dago izena emateko aukera.**

## Familiak bizikletaz

**I**gandean, hilak 31, irtenaldia egingo dugu Ibarreko familiok bizikletaz. Elkargunea Mutiloa plaza izango da, eta 10:00etan elkartuko gara. Gero, pixkana Ezkorizko istileraino joango gara, eta han hamaiketako ekologikoa egingo dugu.

Noiz: martxoaren 31n, igandea, 10:00etan

Non: Mutiloa plazan (Mutiloa)

Martxoaren 22a baino lehen eman behar da izena



## Atera zure bizikleta kalera Bizikleten zozketa, ‘Atera zure bizikleta kalera’ kanpainaren barnean

**H**urrengo urtarrilaren 10ean, 18:30ean, kultur etxean, bi bizikleta tolesgarri zozkatuko ditugu (bata helduentzat eta bestea txikientzat). Saria jaso ahal izateko, irabazleak edo behar bezala egiaztatutako senitarteko edo lagun batek (NANaren edo familia liburuaren kopia izan beharko du) aretoan bertan egon beharko du. Horrenbestez, irabazle suertatu dena ez badago han, bizikleta berriro zozkatuko da.



## Ingurumenaren arloko argazkilaritza

**A**urten, zazpi egilek hemeretzi lan aurkeztu dituzte lehiaketara, eta zazpi egile horietatik sei Ibarrean erroldatuta daude..

Aurten, kategoria nagusiko sariduna Javier Yarnoz Sanchez izan da, Iruñekoa, eta "Goizeko paseoa" argazkiak ekarri dio saria. Bertako argazkilarien kategorian, berriaz, Raúl Ayeche Rípodasek eskuratu du saria. Ayeche Mutiloakoa da, eta "Beste egun bat" argazkiarengatik jaso du saria.

Nabarmendu behar da aurkeztu dituzten argazki guztiak kalitate handikoak izan direla, eta argazki horietan Ibarreko toki asko eta askotarikoak atera dituztela.



*Etorri bizikletaz eta lortu zigiluak zozketan parte hartzeko.*

## "Atera zure bizikleta kalera" kanpaina Lehiaketaren beste ekitaldi bat

**L**ehiaketaren VI. ekitaldia jarri behar dugu martxan, hurrengo urtean bizikleta bat irabazteko aukera izan dezazun. Horretarako, gogoan izan behar duzu bizikletaz joan behar duzula ikastetxera, udaletxera, kultur etxeko ekitaldietara, kiroldegira, Aranetxera... Gero, toki horietan eskatu behar duzu zigilua jartzeko txarteletan. Hain zuzen, txartelak udaletxean, ikastetxean, kiroldegian eta kultur etxean eska ditzakezu.

## Lehiaketa: Ezagutu Ibarra

**A**rgazki hau zer den edo non egin den badakizu, idatzi mezu elektronikoa bat edo bidali gutun bat Naturgunera.

Otsailaren 14a baino lehen jasotzen ditugun erantzun zuzen guztien artean olio birziklatua erabilita egindako xaboi naturalen bi sorta zozkatuko ditugu.

Aurreko aldizkariko argazkia non egin genuen jakin zutenen arteko zozketako irabazlea Alfredo Ekiza da. Zorionak!



## "Ekoago, mesedez" kanpaina

**P**rest dago behera kargatzeko Ekoaldizkariaren 5. Alea. Elikadura, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoari buruzko eskola aldizkaria da. [www.aranguren.es](http://www.aranguren.es) udal webgunera jo behar da, **Informazio-buletinak** atalera